
Glutenik jan gabe zeliakia identifikatzeko biomarkatzaile berria

EHUko eta BioCruceseko ikertzaile batzuek gaixotasun zeliakoa diagnostikatzeko biomarkatzaile berri bat aurkitu dute, glutenik gabeko dieta hartzen duten pertsonekin erabiltzeko aukera emango lukeena. Zeliakia diagnostikatzeko zailtasunetako bat da pazienteek glutena hartu beharra dutela gaitza endoskopia bidez behar bezala diagnostikatzeko. Biomarkatzaile honekin, ordea, ez dute glutenik hartu behar. Gainera, gero eta jende gehiagok jotzen du bere dietatik glutena kentzera espezialista batekin kontsultatu aurretik, eta horrek zaildu egiten du gaitxotasunaren diagnostiko fidagarri bat egitea. Kasu horietan ere, diagnostikoa erraztuko du.



Nora Fernández-Jiménez eta José Ramón Bilbao Catala ikertzaileak. ARG.: EHU.

Metodo berriarekin, odoleko UBE2L3 genearen espresioa aztertuta jakin dezakete pertsona batek zeliakia duen edo ez. Egileek azaldu dutenez, "gero eta gehiago ari da handitzen glutenarekiko sentikortasun autodiagnostikatuaren fenomeno; Italian eta Erresuma Batuan populazio orokorraren % 12-13ra iritsi da dagoeneko".●

Starlink satellite-kateak eztabaida piztu du



Starlink satellite-konstelazioaren helburua Internet sare globala osatzea da. ARG.: Mark Handley/University College London.

SpaceX espazio-konpainiak Lurraren inguruan osatu nahi duen satellite-konstelazioaren lehen 60ak zeruan dira. 12.000 satellite jartzea da helburua, baina lehen 60 horiek sortutako eragozpenek astronomoak eta zaleak asaldatu ditu, dagoeneko.

Satellite-konstelazio horren bidez, Elon Muskek, SpaceX konpainiaren nagusiak, Internet-sare global bat eskaini nahi die mundu osoko erabiltzaileei, baita leku bakartienetan daudenei ere. 2020rako satellite guztiak zeruan izatea zen asmoa, eta horretarako baimena badu, bai Telekomunikazioen Nazioarteko Batasunarena, bai AEBetako Komunikazioen Batzorde federalarena.

Lehen 60 satelliteak maiatzaren 23an espazioratu zituen. Astronomia-argazkilaria asko kexatu dira, argazkiak hondatzen dituztelako duten distiraren erruz, eta astronomoak ere oso arduratuta daude, bereziki irrati-astronomoak, satelliteek erabiliko dituzten maiztasunek bat egiten dutelako irrati-astronomian erabiltzen direnekin. Satelliteek sortutako trabak konpontzeko ahalegina egingo duela adierazi du Muskek, baina, adituen ustez, hori guztia satelliteak espazioratu aurretik hartu behar zen kontuan.●